

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

AUPADA BERRI BAT BIDEA EGITEKO

Lehenengo eta behin, eskerrik egiazkoenak Sabino Arana Fundazioari 2018ko uztailaren 12an “Euskararen erabilera-aren gakoak” jardunaldia antolatzeagatik, eta nire esker ona, bide batez, bertan parte hartu genuenon ekarpen eta iritziak Hermes aldizkariaren ale honetan jasotzeko aukera emateagatik.

Sasoi bakoitzak izan ohi du bere jomuga, eta bizitzea suertatu zaigun aldi honek ere badu berea euskararen biziberritzeari dagokionez: gure hizkuntza propioaren erabilera sustatzea.

ABIAPUNTUA ETA JOMUGA: EUSKARAREN ERABILERA

1960ko hamarkadan euskararen berreskuratze-prozesuaren lehen eragile izan zirenek uste izan zuten, segur aski, gure gizartea euskalduntzeko hamarkada gutxi batzuk aski izango zirela. Beste hainbatek ondorioztatuko zuen euskal

hiztunon mintzaira hezkuntzaren eta ikaskuntzaren bitartez hiztun berriengana hedatu ahal bizkortuko zela euskararen erabilera gure gizarte osoan. Euskara irakatsi eta ikasteak berez ekarriko zuela euskara nonahi eta uneoro erabiltzea. Baina, ez da hala izan.

Izan ere, giza errealitateak konplexuak dira, eta geurea ere bai. Zimentarri aunitz eta askotarikoan gainean eraikitako gizarte berri batek -eta horixe izan da euskal gizartea azken mende honetan: gizarte berri bat, batik bat, gure artetik eta gure artera gerturatutako biztanleen joan-etorrien eraginez eraikia, batetik; eta ikuspegi ideologikotik anitza dena, bestetik- denbora behar du aldakuntza-prozesu sakon bat mamitzeko. Hala, bada, denbora hartzen ari da. Susmoa daukat batzuk, honetaz publikoki gehien hitz egiten dutenak, dudarik gabe, luzetsita daudela, azkar eta arin behar zuen zerbait gehiegi atzeratzen ari delako kezkatuta, uste eta nahi izan zutena mantsoegi doala sinetsirik.

Edonola ere, gaur denok euskararen erabilerari bultzada indartsua ematea dugu helburu eta kezka, eta euskararen erabileraren erronka ekarri dugu gure eginkizunen zerrendaren lehen postuetara.

Erabilera dugu, beraz, helburu, batez ere, azken hamarkadetan euskararen ezagutza-prozesuak bilakaera handia izan duelako, euskal hiztunak

EL RETO HOY ES IMPULSAR EL USO DEL EUSKERA, UNA SITUACIÓN A LA QUE HEMOS LLEGADO GRACIAS AL ENORME INCREMENTO DEL CONOCIMIENTO DE LA LENGUA VASCA. SE TRATA DE UN LOGRO QUE NO DEBERÍAMOS MENOSPRECIAR

biderkatu egin direlako eta 223.000¹ hiztun berri etorri zaizkigulako euskara ezagutzen dugunon komunitatera.

Pentsatzen dut merezi duen balioa eman behar geniokeela ezagutzak izan duen gorakadari, era jarraituan eta eten barik, modu indartsu eta baketsuan gertatu delako. Eta ez dakit lorpen hori behar bezala baloratzen dugun. Ezetz esango nuke.

GIZARTEAREN BABESA

Euskarak ez ditu dekretuz bereganatu euskal hiztun berri horiek. Aitzitik, euskal gizarteak euskararen alde egin duen apustu handiaren emaitza izan da. Gizarteak konfiantza izan du gure hezkuntza-sistemak euskararen alde hartutako erabakietan, eta euskal ereduaren aldeko aukera argia egin du. Gizarte-eskari indartsu bat ere egon da euskararen aldeko apustua egin dadin gizarte-ekimen eta herri erakundeetan. Hein handi baten, bat egin dute gizarte-eskariaren eta euskal erakundeen konpromiso nahiz ekintzek. Euskara ikasi eta gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko aldarrari eta konpromiso horrek eragin positiboa izan du euskal gizartean, oro har: herritarrek, familiek, herri erakundeek eta erakunde pribatuek ulertu dute, apurka-apurka, euskarak bere tokia izango duen gizarte elebidun edo eleanitza desio dutela beraientzat eta baita euren ondorengoentzat ere.

Adostasuna landu da eta adostasuna lortu da. Uztartu egin dira gehiago nahi zutenen pazientzia eta euskararik ez eduki arren bere normalizazioari babes soziala eman diotenen konpromisoa. Kontsentsu zabalak eraiki dira, arrakalarik sorrarazi gabe. Eta hori guztia, inondik ere, lorpen handia da gure gizartean.

Aurrean dauzkagun eginkizun berrietarako ere behar-beharrezkoa izango da adostasuna eta konplizitatea lantzen jarraitzea eta jagotea. Erabilerari bultzada berri bat emateko ere bai, zalantzarik gabe.

Euskararen inguruan eztabaida berriak pizten baditugu, eta horiek norbaitek txarrerako erabili nahi baditu, ahuldu egingo dira gure zoru komunalak, gure adostasunak, eta zailtasun berriak sortuko dira.

Zain ditzagun lortu ditugun konplizitateak!

DISKURTSOAREN GARRANTZIA

Nago diskurtso ezkor gehiegitxo entzuten dela egindakoaz eta gaur egun egiten ari denaz. Ez dut uste errealitatea ezkutatu edo goratu behar dugunik. Ez dago motiborik autokonplazentzia eta bozkariorako, baina zergatik batzuetan entzuten dira hain bortizki diskurtso ezkor horiek? Euskarak diskurtso positiboak behar ditu, eraginkorrak; ezintasuna eta frustrazioa eragingo dutenak ez. Eta esango nuke ezkortasunetik ere hitz egiten dela erabileraz.

Erabileraren gaineko irakurketa egin beharko genuke urrutiagoko perspektiba batetik. Geure burua engainatu gabe, baina egindakoa gutxietsi barik. Gaur egun euskaraz arrunt modu zabal eta normalduan hitz egiten den toki askotan, orain dela hamarkada batzuk gutxi edo ia bat ere ez zen hitz egiten (Tolosan, Arrasaten, Gernikan, Hernanin...). Toki horietan, aurrerapauso ikaragarriak eman dira; euskara eskuratu dutenen kopurua asko handitu da gune horietan, baita erabilera ere.

Beste hainbat tokitan, ezagutzaren edalontzia neurri batean bete bada ere, erabilerarena oraindik erdi hutsik edo erdi beteta dago, nondik begiratu nahi dugun. Eta hori ulertzeko ezagutu behar dugu adibide bakoitzaren testuingurua: gerta liteke euskararen hiztun berri horiek, asko izanagatik, erdal eremu zabalago baten bizitzea eta horrek eragitea; gerta liteke, euskara jakin arren, erabiltzeko aukerarik ez izatea; hiztun berrien identitate-hutsuneak eta konplexuak ere tarteko dira arrazoi horietan. Euskararen erabileran edo erabilerari gabezia eragiten duten faktoreak asko eta asko dira, eta faktore horietako bakoitza xeheki ezagutu beharko genuke, horietako bakoitza aintzat hartuz ere egin beharko genituzke erabilera datuen irakurketak.

Esan bezala, euskararen -eta hizkuntza gehien- erabileran eragiten duten faktore bereziki

EL AVANCE DEL EUSKERA NO SE HA CONSEGUIDO POR DECRETO, SINO GRACIAS A UN CONSENSO SOCIAL Y A UNA COMPLICIDAD QUE HEMOS DE CUIDAR

azpimarragarriak dira hauek: euskara non ikasi den (etxean / eskolan), euskaraz hitz egiteko erraztasuna edo gaitasuna; eta balizko hiztun horrek duen harreman-sarea.

Euskara erabiltzeko zailtasunak zein diren hobeto uler genezake horrela. Askorentzat euskara da bigarren hizkuntza, etxetik kanpo jasotakoa, eta gehienetan, eskola-hizkuntza. Pertsona horiek, asko eta asko haur eta gazteak, gai dira euskaraz ikasketak egiteko; bereziki gai dira euskaraz ulertu eta testuak idazteko, horretan trebatu baitituzte eskolan. Aldiz, horietako gehienek zailtasunak dituzte jolasaldian edo aisialdian euskaraz mintzatzeko. Ikasketa gunetik kanpoko euskara ez zaie irakatsi, ezta testuinguru horietako euskara erabiltzen ere. Momentu horietan euskarak ez die ahotik irteten. Errazago bizi dira gaztelaniaz. Sarri askotan, gainera, eskola-lagunez kanpo ez dute norekin euskaraz hitz egin, gaztelania hutsez bizi den ingurunean dabilzalako. Eta bestelako faktoreak ere badaude: euskarari buruzko interesa, hizkuntza-ohiturak, hizkuntzaren prestigioa...

ESKOLAK BAKARRIK EZIN DU

Diagnosia eginda dago. Orain, ekintza-planak behar ditugu. Eta elkarlana behar dugu. Eskolak bakarrik, ezin du. Erakundeek bakarrik, ezin dute. Guztion arteko elkarlana beharko da erronka berri honi heltzeko. Eta ahaleginak gunee eta arlo guztietan egin beharko dira: aisialdian, jolasaldian, kirol esparruan, kultura-dukietan, lan-munduan, hedabideetan, ingurune digitalean... Begirale eta laguntzaileak behar ditugu, aktibatzaileak, konpromisoa eta eduki interesgarriak euskarri, gunee eta arlo guztietan.

Eta helburuak ipini beharko ditugu, helburu egingarri eta lorgarriak. Hezkuntzan eta hezkuntzatik kanpo.

On dateke era berean ingurune soziolinguistiko ezberdinak bereiztea, bai diagnosiak egiterakoan eta bai helburuak finkatzeko orduan. Helburu miresgarria izan daiteke, adibidez, Bilbo euskalduntzea. Baina horrek denbora asko beharko du, eta ezin izan liteke frustrazio-iturri. Helburu horri uko egin gabe, hurbilagoko helburuak ipini beharko ditugu. Adibidez, euskaraz ulertu edo-eta hitz egiteko gai garen guztiok, gure artean sortzea euskaraz komunikatzeko baldintza egokiak: etxean, lagunartean edo lanean; edo euskararik gehien hitz egiten den ingurune soziolinguistikoetan euskararen erabilerari eustea, horretarako behar diren aktibazio ekimenak landuz.

Euskararen etorkizuna, inoiz baino gehiago, gure esku dago. Erakundeen bultzada nahi eta ezkoa izango da, bai; ahalik eta ingurunerik aproposenak zaindu eta elikatu beharko ditugu, bai, baina azkenean, azken erabakia, euskara burutik ezpainetara eramateko erabakia, nahita edo nahigabe, konturatuta edo oharkabean, norberarena da, geurea da, denon eta norberaren esku dago.

HIZKUNTZA OHITURAK NOLA ALDATU?

Artikulu hau irakurtzeko gaitasuna duen edonork baditu bizipenak, badu eskarmentua. Badaki nola hurbildu den euskararen mundura, jakitun da zerk eraman duen euskaraz mintzatzera, edo ez hitz egitera; badaki, aurkako jarrerarik izan gabe eta laguntza egokia jasota, iritsi litekeela euskara erabiltzen hastera; badaki, aktiba litekeela euskara erabiltzeko jarrera.

Euskaltzaleok, erakundeetan gaudenok zein gizartetik eragiten dutenek, erronka bat ezarri diegu Euskal Herri osoan euskararen komunitatea osatzen dugun pertsona guztiei: Euskaraldia. Euskaraldiak ipini ditu lanean hainbat elkarte eta pertsona ekimena gara dadin. Hutsetik hasi eta puzean ari den puxika erraldoi bat osatzen ari gara elkarrekin; ariketa sozial bat elkarrekin egitera gonbidatu ditugu herritar banako zein erakundeak, baita ariketa hori elkarrekin prestatzera ere. Aurre-bizipenei, antolaketa prozesuari arreta berezia eman nahi izan diegu. Eta ekimen berritzaile hau ere badagokigu zaintzea, ez dadin hustu, ez dezan eztanda egin.

Euskaraldia amaitutakoan jasoko ditugu haren ikerketak emandako emaitzak; jakingo dugu

zein neurritan eragin duen erabileran eta hizkuntza ohituen aldaketan. Jakingo dugu, horrez gain, gizartearen aktibazio prozesuaren gakoak zein izan diren; gizarte arloan gertatu diren mugimenduak irakurtzeko ariketa egitea egokituko zaigu.

Gizarte aktibazioaz ari naizen honetan, aipatu nahi dut abian direla hiru unibertsitateetan hizkuntza-ohiturak sortu eta aldatzeko faktore eta eraginen gaineko ikerketak, adibidez. Horietatik ateratako ondorioek ere lagundu ahal izango digute etorkizuneko erabakiak hartzen eta ekintza-planak egokitzen, gazte-jendearen jokabideez ari garela.

Bestalde, hor dugu euskal hezkuntza sistema indartzea helburu duen erreforma ere. Hezkuntza munduko aditu eta arituen ekarpenak jaso ditu erreforma honek, eta hizkuntzekiko ere helburu berri eta zehatzak ezarri beharko ditu, baita horiek lortzeko behar izango diren baliabideak ere. Gure ikasle gazteen hizkuntza irteera profilak egokia eta orekatua izan beharko du EAEko bi hizkuntza ofizialetan: euskaraz eta gaztelaniaz. Eta maila duina lortu behar dugu hirugarren hizkuntza batean. Izan ere, euskara eta euskal kultura ardatz duen hezkuntza sistema eleanitzaren aldeko apustua egin du erreformak.

Aisialdian eta kirolaren esparruan, euskara normalizatzeko ikerketak eta ekimen zehatzak gauzatu beharko ditugu. Aisialdia eta kirola euskaraz eskaintzeaz gain, eremu horietan euskararen erabilera sustatzeko faktoreetan oinarrituz lan egin beharko dute eremu horietako hezitzaile eta subjektu askotarikoek (entrenatzaileak, klubak, gurasoak, hedabideak...).

Herri aginteetan ere euskararen erabilerari begirako hizkuntza-plan eragingarri eta sinesgarriak diseinatu beharko ditugu. Herri-administrazioko langileek lortutako hizkuntza gaitasunak praktikan jartzeko bideak eraikitzea dagokigu. Euskarak, zerbitzu hizkuntza ez ezik, lan hizkuntza ere izateko urratsa eman behar du. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea helburu lehenetsia izan behar du.

Pertsona helduak euskalduntzen eta trebatzen jarraitu beharko dugu, euskaltegien bitartez. Euskara ezagutzetik harago, euskaraz komunikatzeko gai diren hiztun berriak lortzea dugu helburu. Ikuspegi horrek lagunduko digu euskara erabilia izateko metodologia didaktikoetan sakontzen.

Eta bultzada indartsu bat eman beharko diogu euskararen erabilerari lan esparruan, enpresa-munduan. Bide hau urratu duten hainbat erakunde eta enpresen praktika onak plazaratzea egokituko

EN ESTE PROCESO DEBEMOS TENER MUY EN CUENTA A ESAS Y ESOS NUEVOS CIUDADANOS VASCOS QUE HAN VENIDO A VIVIR A ESTA TIERRA

zaigu, enpresentzat hizkuntzak kudeatzeak dituen onura ekonomiko zein sozialak ikusarazteko bideak lantzea, edo Lanbide Heziketa euskaldunagoa izateko aukeretan sakontzea.

Eta arreta berezia ipini beharko diegu gure artera bizitzera etorri diren euskotar berriei. Kanpotik datoz, nor bere hizkuntza eta kultura dakarrela. Gure biztanleriaren ia ehuneko hamar dira dagoeneko eta azken hamar urteetan iritsi dira gure lurraldera. Gehiago ere etorriko dira. Euskotar berri horien hizkuntza-ohiturekin egiten dugunak erabateko eragina izango du gure hizkuntzaren erabileraren bilakaeran. Horiekin zer egingo dugu? Bada, gutxienez, orain arte egin duguna: haien seme-alabak euskaldundu, gurasoekin euskararen aldeko jarrerak elikatu, beraien jatorrizko hizkuntza, gaztelania eta ingelesarekin batera euskara ere jakiteak izan litzakeen onurez jabebarazi...

Horretan ere badugu lehenagoko esperientziarik. Badira, dagoeneko ehun urte baino gehiago, lehen industrializazio garaian, gure gizartea aldatzen hasi zela. Landa eremutik industriara lanera joateak euskal herritarrek lana gaztelaniaz egitera eraman zituen. Espainia osoko lurraldeetatik euskal industriari lan egitera milaka eta milaka familia etorri ziren, eta lanean, gaztelaniaz egiten zen. Berrogeita hamar urte inguru joan dira, diktaduraren garaian, berriro ere lan bila, Espainiatik beste milaka familia etorri zela. Industrializazioak eta diktadurapeko baldintza soziopolitikoek, besteak beste, eten zuten euskararen transmisio indartsua eta hasi zen euskararen ezagutza eta erabileraren beheranzkoa. Haizea kontrara izanda ere, zailtasunak gainditzeko gai izan gara. Ekintzaile eta berrikuntza-zale garenez, ekinaren ekinez, pazientzia handiz eta konpromisoak betez iritsi gara gaur gauden tokira. Ez gehiago, baina ezta gutxiago ere. Badakigu zer egin behar dugun. Egin dezagun guztion artean.